



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko otsailaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko otsailaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, , DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, . IRIART Jean Claude

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

Afitzatze eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

5. ERABAKIA: 2025 URTERAKO, HERRIKO BESTA KOMITEAREKIN PARTAIDETZA HITZARMEN BATEN IZENPETZEA BEHIN BEHINEAN EDARIEN SALDU AHAL IZATEKO

(6.1.2 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio urtero partaidetza hitzarmena izenpetzen dela herriko besta komitearekin, herriko besten karietara gehiegizko alkohol kontsumoei datxizkien arriskuen prebentzioa egiteko. Hitzarmenaren xedapenak betetzen badira, Besta Komiteak goizeko 4ak arte saltzen ahalko ditu edariak.

Auzapezak partaidetza hitzarmen horren izenpetzea proposatu du 2025 urterako.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO,** Auzapezari, herriko Besta Komitearekin 2025rako partaidetza hitzarmenaren izenpetzeko, eta horretarako beharrezkoak diren izapide guztien egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko otsailaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2025/02/10an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/02/10an.

